

# 2023

## URTEKO TXOSTENA



Memoria honetan Izarbidean elkarteak, batez ere boluntarioei esker, 2023. urtean zehar garatu dituen ekimenen narrazio kronologikoa aurkeztuko dugu.

Lehenik eta behin, aipatu nahi dugu aurreko hiru urteetan Covid-19a ondorioz gure elkartearen jarduna birmoldatu beharra izan genuela. Aurten, berriz, taldeak berriro batu ditugu eta lehengo dinamikara bueltatu gara.

Sukaldaritza-tailerra egiten jarraitzen dugu, eta errezeta berriak egiteko aukera ere izan dugu. Polikiroldegiko igerilekura joaten direnean ere gustura aritzen dira.



Gure lokalean, Topagunean, hainbat arratsalde pasatu ditugu, eskulanak egin, irakurketa- saioak edota beste hainbat ekimenetan.

Zaldietara, ekinoterapia saioetara, zapatuero joaten dira. Horretarako, 4 pertsonako talde txikiak antolatu ditugu eta, ondorioz, erabiltzaile bakoitzak 3 asterik behin joateko aukera izan ohi du.

Besterik gabe, murgildu zaitez gure memorian eta jakizu existitzen diren muga bakarrak nork bere buruari jartzen dizkionak direla.

Izarbidean irabazi-asmorik gabeko elkarteak da. Elkarte hau aniztasun funtzionala duten erabiltzaileen gurasoek sortu zuten. Hain zuzen ere, Markina-Xemein eta Etxebarriko guraso batzuek. Gaur egun, Izarbidean taldea familiartekoek, boluntarioek eta erabiltzaileek osatzen dute.

Gurasoen helburu nagusia haien seme-alaben gizarteratzearen aldeko planak egitea eta gizarte osoari, baina batez ere bi herri horietako herritarrei, bide horretan partaide eta laguntzaile izateko bidea erraztu eta eragile izateko aukera ematea da.

Elkarteak sortu ondoren, eta euren seme-alaben premien azterketak egin ostean, une horretan bi lehentasun zehatzak ondorioztatu zituzten: alde batetik, eguneko zentroa sortzea eta,

beste alde batetik, aisialdirako talde bat eratzea eta horretarako beharrezko azpiegitura garatzea (lokala lortu eta atontzea, boluntario-sarea antolatzea...).

Bestalde, Izarbidean elkarteak Markina-Xemein herrian eguneko zentro bat sortzea bultzatu zuen zenbait instituziotan, esaterako, Foru Aldundiaren Ongizate Batzordearen aurrean. Eguneko zentro hori Gorabide elkarteak kudeatzen du gaur egun.

2007ko urtarrilean jarri zen martxan Aisialdi-proiektua, Markina-Xemeingo Udalak utzitako Topagune deitu genion lokal batean. Izenak adierazten duen moduan, helburu nagusia ume, gazte eta helduak elkarrekin egoteko gune aproposa izatea da. Nabarmendu beharreko beste datu bat ere gehitu nahiko genuke: Izarbidean Elkarteak Onura Publikoa duten elkarten erroldan onartua dagoela, 2012ko irailaren 14an argitara emandako EHAAren.





Markina-Xemein eta inguruan ez dago pertsona horien premiak betetzeko aisialdi-ekintzarik. Hori dela eta, lagun gehiagorekin elkartu eta ondo pasatzeko aukera izan dezaten aisialdi-eskaintza da ematen zaiena, beti ere, gizarteratze-helburua lehenetsita. Hori guztia boluntario taldearekin eta laguntzaile kontratatu batekin garatzen da.

Bai Topagunean, bai kalean, hainbat ekintza egiten dituzte: paseoa ibili, margotu, jolastu...

Dena den, jakin badakigu hori ez dela egoera ideala, argi baitago beren dibertsitate funtzionala dela eta, lagunekin eta monitoreekin baino ez izatea ez dela nahiko genukeena. Herriko hainbat ekintza eta

ospakizunetan, zoritxarrez, gure erabiltzaile gehienak baztertuta gelditzen dira. Gainera, pandemia egoeran ezin izan dira aurreko urteetan egin diren talde handiko ekintza integratzaile bakarrak garatu: Santa Ageda, San Joan suak...

Azken urteotan, pauso handiak eta sendoak eman dira inklusioa gauzatzeko bidean, baina bidea luzea eta neketsua da eta argi asko ikusten dugu hori gurasoek eta familiakideek ez ezik baita monitore eta laguntzaileek ere. Dena den, gure helburua betetze aldera, saiatuko gara erabiltzaileek ekintza arruntetan eta "normalizatueta" parte hartu dezaten, inklusioaren bidean aurrera egiteko.



Proiektu hau 17 erabiltzailerekin hasi zen, eta hilabete batzuetara 19ra handitu zen. Gerora, azken urteotan, taldea 20koa izatera iritsi da. Gehienak Markina-Xemeingoak dira, baina badaude inguruko herri bateko partaideak ere (Etxebarria).

Adinari dagokionez, proiektua adin guztietara dago zabalik. Gure erabiltzaileak une honetan 21 eta 67 urte bitartean daude. Horregatik, 2 taldetan banatuta daude, adinaren arabera:

**Garra-garraka taldea** (21-28urte bitartekoak)

**Algaraka taldea** (29-67 urte bitartekoak)

Erabiltzaileek diagnostiko desberdinak dituzte. Adibidez: Autismoa, West Sindromea, Garun paralisia, Mikrozealia + Hemiplejia...

Aipatu beharra dago erabiltzaileek Izarbidean elkartera oso gustura etortzen direla, haien aisialdia oso aberasgarria eta gustagarria baita. Izan ere, egunerokoan egiten ez dituzten hainbat ekintza egiten dituzte eta "eurena" sentitzen duten leku bihurtu dute Topagunea.

Taldeak	Garra-garraka	Algaraka	Guztira
Neskak	1	9	10
Mutilak	4	6	10









- Indarrean dagoen legearen arabera, adimen desgaitasuna onartua izatea.
- Elkartean erroldatua egotea.
- Elkartean dagoen bitartean zunda, injehtagarri eta abarren beharrik ez edukitzea.
- Norbere burua eta beste pertsonen segurtasuna arris- kuan jar dezaketen jokaerarik ez izatea.
- Erabiltzailearen premiek monitore eta erabiltzailearen ra- tiora egokituta egon beharko dute.
- Taldearen funtzionamendura edota jarduerara egokitzea.



Izarbidean elkartearen Topagunea eta aisialdi-proiektua aurrera eramateko, ezinbestekoak dira boluntarioak. Lehenik eta behin, Izarbidean elkartek ez duelako jende nahikorik kontratatzeko baliabide ekonomikorik, eta, bigarren, baina ez horregatik garrantzia txikiagoa duelako, BOLUNTARIOek ematen diotelako izaera eta hauspoa gure elkarteari.

2023 urtean horien guztien arduraduna LANBIDEtik kontaktuan jarri ondoren ezagutu genuen Durangoko mutil gaztea da, lanaldi erdian kontratatuta dagoena. Azaroaren hasieran bueltatu da berriz ere aurreko urteetan haiekin egon den langilea, amatasun-baimena bukatu ostean.

Boluntarioek esaten dute oso pozik eta gogotsu etortzen direla Izarbideanera, eta ikusi ere, halaxe ikusten da. Hona hemen haiek esandako esaldi batzuk: *“pozik bizitzen eta alaitasunez gozaten erakusten digutelako une askotan, eta talde-giroa ezin hobea delako”, “persona oso maitakorrek die, zuk emotezun gitxiaz asko jasoten dozulako eurengandik”, “irakasle paregabeak dira, irribarrea galdu gabe bizitzan aurrera egiten erakusten digutelako”.*

### Boluntarioak lortzeko bidea

**Prentsa:** Zenbait egunkarirekin harremanetan izan gara: Hitza, Deia, Correo.

**Kartelak:** Markina-Xemein, Ondarroan eta Etxebarriko kaleetan eta zenbait komertziotan kartelak jarri ditugu.

**Ahoz ahoko transmisioa;** hau da, boluntarioek eurek, taldeetan, instituzioetan eta abar egiten dituzte komentarioetatik lortzen dugu oihartzun handiena.

**Ikastetxeetan:** Aukera izaten dugun bakoitzean ikastetxeetara jotzen dugu, ikasleekin solasaldi bat izan eta jolas batzuen bidez gure elkartea ondo ezagutzeko aukera paregabea da. Horrez gain, eguneroko errealitatearen beste aurpegi bat erakutsi nahi izaten diegu ikastetxe horietako ikasleei. Adibidez, Lea-Artibai Ikastegian izan gara lehendakaria eta langile-monitorea Batxilergoko ikasleei Izarbidean zer den azaltzen. 2023an bi aldiz izan gara Ondarruko institutuan ere, bertako Zikloetako irakasleek gonbidatuta. Bi kasuetan izan dugu harrera bikaina, baina, gero ez dugu boluntariorik lortu bide horietatik, behintzat momentuz.

**Sare sozialak:** Instagram eta Facebook bidez ere gure burua ezagutzera ematen ari gara, gure hainbat ekimen argitaratuta jendea elkartera erakartzea helburu.

### Boluntario izateko betebeharrak

- 18 urte beteta izatea, eta horrelako lan batean parte hartzeko gogoia izatea. 16 urtetik aurrera ere aritu daitezke boluntario lanetan, baina beti ere gurasoen baimen idatziarekin.
- IZARBIDEAN elkartearekin izango dituen eskubideak eta betebeharrak azaltzen dituen dokumentu bat sinatzea.

### Boluntarioei harrera

Boluntario batek izena ematen duenean, lanean hasi aurretik, haiekin biltzen da koordinatzailea. Bilera horretan zera azaltzen zaio:

- Haien eskaintzara moldatzen garela eta lana zein talderekin eta zein ordu-tegitan egingo duen adosten dugu.
- Proiektuaren nondik norakoa azaltzen zaie (txostentxo bat ematen zaie).
- Lokala erakusten zaio.
- Erabiltzaile bakoitzaren informazio garrantzitsuena ematen zaio.
- Eskubideak eta betebeharrak fitxa betetzen dute (Indarrean dagoen Boluntarioen legeari jarraituta).



**Boluntarioen zerrenda**

IZENA	HERRIALDEA
Jokin Cuende	Durango
Amaia Markuerkiaga	Ondarroa
Amaia Zuberogoitia	Markina-Xemein
Maia Azpiazu	Markina-Xemein
Miren Zuberogoitia	Markina-Xemein
Nerea Meabebasterretxea	Ondarroa
Teresa Pagaegi	Markina-Xemein
Andrea Pagaegi	Markina-Xemein

**Formazioa**

Boluntarioei lehenengo bileran Aniztasun -funtzionalari buruzko dokumentu bat banatzen zaie. Bertan dago azalduta nola funtzionatu behar duen erabiltzaileekin. Beste alde batetik, formazio-eskubidea dutela esaten zaie.

Formazio-ikastaro horiek, helburu argi bat dute: lana ahalik eta modu eraginkorren garatu dezaten laguntza eta aholkuak eskaintzea. Horretarako, Apnabi, Gorabide, Aspace... elkarteak gonbidatu izan ditugu, informazioa eman diezaguten.

Esaterako iaz jaso zutene formazioa, lehen sorospenak errealitate birtualaren bidez izan da. Topagunean elkartu eta 6 orduko ikastaroa izan zen, eta teoria eta praktika landu ziren. Praktika orduan errealitate birtuala eta panpina erabili ziren. Begiraleen esanetan oso interesgarria eta desberdina izan zen, gustura egin zuten eta aukerarik balego, gehiago sakontzea ere ondo legokeela komentatu zuten.

Saiatuko gara aurrerantzean ere boluntarioen eskaeren eta erabiltzaileen premien arabera formazio-saioak antolatzen.



Arestian azaldu dugun moduan, elkartean helburu nagusia erabiltzaileei haien denbora librean, aisialdian, zenbait ekintzatan parte hartzeko aukera ematea da. Horretarako, esparru desberdinetan mugitzen gara. **Topagunean** egiten dira ekintza gehienak, baina herriko bestelako zerbitzu eta eskaintzak ere erabiltzen ditugu eta ekintza kulturaletan parte hartzen dute. Adibidez: polikiroldegia, zeramika-tailerra...

Erabiltzaileen integrazioa dela eta, esan genezake talde bakoitzarekin lana egiterako orduan, alde desberdinak hartu behar direla kontuan, taldeek ezaugarri propioak dituztelako, horietako bakoitza osatzen duten erabiltzaileen ezaugarri pertsonalen araberakoak. Hori dela eta, egiten diren ekintzak edo jarduerak oso desberdinak dira talde batetik bestera. Adibidez: **Algaraka** taldea da autonomia handiena duena eta errazagoa da haiekin ekintza anitzagoak garatzea. **Garra-garraka** taldeak arazo gehiago edo anitzagoak ditu, haiek dituzten ezintasunak ere handiagoak direlako eta, ondorioz, haiekin egin daitezkeen ekintzak askoz ere baldintzatuago daude.





laztik hasita, antolakuntza birmoldatu beharra izan dugu. Honako hau da erabiltzaileen ordutegia:

### Garra-garraka taldea

- Ekinoterapia | 11:00etatik- 14:00etara (zapatuetan)



### Algaraka taldea

- Astelehena, 17:30-20:00 Topagunea edo Paseoa.
- Asteartea, 11:00-13:00 Topagunea edo Paseoa eta 18:00etatik-20:00etara Zeramika-tailerra, (Zeramika-tailer horretan ez dute erabiltzaile guztiak parte hartzen. Kanpoko irakasle batekin adostutako ekintza da eta joaten direnean familia bakoitzak ordaintzen du dagokiona).
- Asteazkena, 17:30-20:00 sukaldaritza-tailerra Topagunean.
- Osteguna, 17:00-19:30 sukaldaritza-tailerra Topagunean.
- Ostiral batean, 17:00-19:00 Topagunea edo paseoa eta hurrengoan 17:00etatik 19:00etara igerilekura.
- Berrikuntza moduan, Markina-Xemeingo Udalaren dirulaguntza berezi bati esker, eta UHAGON kulturaguneak bideratuta, hilean behin ekintza berezi eta berri batean parte hartzen dute: Donostiako DAGAZ dantza-konpainiak eskainitako mugimendu eta dantza-saio bereziak izaten dituzte. Oso gustuko ekintza da haietako gehienentzat, ez baitute denek parte hartzen (boluntarioa da).
- Larunbata:
  - Ekinoterapia | 11:00-14:00. Taldea banatu egiten da: 4 pertsonak osatutako taldeak sortu ditugu eta Algaraka eta Garra-garrakakoak joaten dira. Bertan ematen duten denborari ahalik eta probetxu gehien atera diezaieten.
  - Hileko lehenengo zapatuetan Eskulan Tailerra izaten dugu Topagunean. Durangoko emakume boluntario batzuk etortzen dira eta haiek dinamizatzen dute ekintza. Oso gustura hartzen dute parte. Gainera, haiek egindako eskulanetako zenbait Urriko Azoka egunean jarri zituzten salgai.

Izarbidean elkarteak abian jarritako aisialdirako proiektu hau jada nahikoa sendotuta dago gizartearen onarpenari dagokionez. Hala ere, boluntarioak egon badauden arren, beti ari gara gehiagoren bila eta ondo zaindu beharreko kontua dela deritzogu, haiek baitira Izarbideanen euskarri nagusia.

2022tik 2023 urtera baxarik ez dugu izan eta aurrera jarraitu ahal izan dugu, hala ere, begirale berrien beharra dugu; hori dela eta, 2024an ere saiatuko gara Ikastetxe eta institutuekin harremana sendotzen eta gure elkarte eta programa aurkezten. Izan ere, praktikak burutzeko aukera ematen dugu eta euren ikasketetarako kredituak lortzeko (Unibertsitaterako) eta monitoretza-titulua atera behar dutenentzako zabalik ditugu ateak.

Erabiltzaileak direla eta, lehenago ere aipatu den arren, garrantzitsua da nabarmentzea orain dela ia 10 urte hartutako erabakia: hiru taldetan banatuta zeuden, baina gazte eta nagusien arteko adin-tartea mantentzen den arren, gazteak ere nagusitu egin dira eta ekintzak elkarbanatzen dituzte ehuneko ehunean, horregatik daude orain bi azpitaldetan banatuta.

Talde bakoitzarekin burututako integrazio-lana erabiltzaile bakoitzaren desgaitasunaren araberakoa da gehien bat, horietako bakoitzak ezaugarri bereizgarriak dituelako eta erabat baldintzatzen duelako zer egin daitekeen eta zer ez.

Erabiltzaileen integrazioa hobetzeko, ekintzak hainbat leku eta esparrutan egin dira. Topagunea erabiltzen da ekintza gehienak burutzeko, baina bestelako eskaintzak ere erabiltzen dira. Egungo egoerarekin asko eta asko bertan behera utzita dauden arren, ez dugu galtzen luze gabe normaltasuna berreskuratzeko gogoia.





**ASTEBURU-PASAK****Ekainak 10-11, LEKEITIORA IRTEERA**

Aurten oso zaila izan da asteburu-pasako irteerak prestatzea. Boluntario faltak asko zaildu du irteera egitea, baina azkenean, XATEko hiru boluntario etortzea lortu genuen.

Parte hartu zuten boluntarioak hauek izan ziren: Saioa, Iraia, Esti, Jokin eta Txomin.

Bertan burututako ekintzak: Zapatu goizean Lekeitioko farora abiatu ziren eta freskagarri batzuk hartu zituzten. Bazkalostean, berriz, batzuk igerilekura joan ziren eta beste batzuk hondartzara. Igerilekura oso gustura joaten dira, bertakoek utzitako uretako material desberdinekin jolas egin eta nekatu ondoren aterpetxera bueltatu eta afaltzeko prestatu ziren. Domeka goiza portuan eta hondartzan igaro zuten, paseatu, argazkiak atera, herria ezagutu eta, nola ez, rabak jateko aukera ere izan zuten.

Aspaldi irteerarik izan gabe zeudenez, oso pozik hartu zuten denek asteburua eta berriz bueltatzeko gogo handia dute.



**Otsailak 4, Santa Ageda**

Aurten baserritarrez jantzita udaletxean geratu ginen eta herriko beste elkarteekin batera irten ginen kantura. Markina-Xemeinen gora eta behera ibili ginen kantuan, musika jotzen, bertsoak botatzen eta abar. Oso egun polita izan zen eta eguna amaitzeko, gure erabiltzaile bat kalejiran atera ziren beste batzuekin aritu zen panderoa hartu eta koplak kantatzen.

**Otsailak 9, San Blasak egin**

Beti Jai elkarteak sorturiko ekintza izan genuen. Gure Topagunera hurbildu eta arratsaldea eman genuen haiekin ikasten, esperientzia oso gustagarria izanzen, eskerrak eman besterik ez daukagu Beti Jai elkartekoei, gu kontuan izategatik.






**Ekainak 16, GURE ZIRKUA**

Gure Zirkua Markinara heltzen zela enteratu ginen. Gure erabiltzaileentzat ekintza polita izango zela pentsatu genuen. Zerbait ezberdina egiteko, talde handian batzeko eta gure artean gozatzeko. Erabiltzaile gehienak etxeko norbaitekin batera joan ziren eta talde polita batu ginen.

Zirkuan harrera beroa egin ziguten taldekideoi; malabaristak, kontortсионistak, musikoak, pailazoak, magoak eta abar ikusi genituen. Oso ondo pasatu genuen eta amaitzerakoan, zirkukoekin batera garzkiak atera genituen..

**Ekainak 23, SAN JUAN SUA**

Urtero bezala, Izarbideanekook parte hartu dugu Solstizioko kalejiran eta ikuskizunean. Aurten, ez ditugu suziriak eraman arriskutsua iritsi geniolako, baina betiko irribarre handiarekin irten ginen kalejiran herrian barrena.





### Uztailak 8, SUEÑA ikuskizuna

Elkarteko guraso batek ikuskizun honen inguruan egin zigun berba eta guztiok batera egoteko aukera polita zela pentsatu genuen. Ikuskizuna egiten zuen neskak pintura erabiltzen zuen eta antzerki interesgarria izan zen. Publikoaren interakzioa bilatzen du aktoreak eta antzezlan dinamikoa eta gomendagarria dela uste dugu.



### Uztailak 14, MARKINA-XEMEINGO KARMEN JAIAK

Aurten, urtero bezala, neurri batean edo bestean, herriko jaietan parte hartzen saiatu gara. Lehenengo eta behin, tren txu-txura igo ginen eta herrian barrena paseo bat eman genuen. Gero dultzaineroekin batera kalejiran joan ginen herria animatzen udaletxe aurreraino. Txupinazioa entzun eta txokolatadara joan ginen. Jaietako beste egunetako batean, magia- ikuskizun bat zegoen herrian eta bertara hurreratu ginen.





**Abenduak 5, Ondarroako institutuan IZARBIDEAN proiektuaren aurkezpena**

Ondarroako institutuan kontzientiazio astea ospatzen dute eta parte hartzeko gonbidapena luzatu ziguten. Gure proiektua beste herri eta jende baten aurrean azaldu eta aurkezteko modu zoragarria izan zen. Batzordekide kide, erabiltzaile eta guraso batzuk elkartu eta hitzaldia eman genuen. Harrera oso ona izan genuen eta esperientzia polita izan zen.

**Abenduak 19, Askaria Bera-Kruz ikastolan**

Orain dela urte batzuk hasi ginen ekintza hau burutzen, Bera-Kruz ikastolak antolatzen du. DBHko ikasleak izaten dira anfitrioiak, eta jai giroan eta oso gustura egoten dira Izarbideaneko erabiltzaileak. Elkar ezagutzeko modu ederra da eta gure elkartearen berri emateko modua ere bai. Horrelako ekintzak errepikatzeke gogotsu izaten dira.





**Abenduak 22, Lagun Ezkutua**

Urteari bukaera emateko ordua ere iritsi zen eta guk opari eta jai giroan eman diogu. Hilabete batzuk lehenago hasten gara dena prestatzen eta antolatzen, denen artean zozketa egin eta bakoitzak oparia nori egin erabakiz hasten gara. Isilean gorde behar izaten dute oparia nori egingo dioten eta eguna iritsi bitartean urduri egoten dira gehienak. Arratsalde horretan, Topagunean elkartu, askari ederra prestatu eta dastatu, opariak zabaldu eta jai-giroan ospatzen dugu arratsalde hori. Taldeko argazkiak ateratzeko ere aprobetxatzen da egun hori.

**Eskulan tailerra**

Ekintza hau iaz hasi zen. Harrera oso ona izan du eta gogo handiz hartzen dute. Hilean behin egiten dugu (hileko lehenengo zapatuan) eta, kurioa da, baina lehen aldian salbu, gainerako guztietan elkarteko neskek baino ez dute parte hartzen.

Lehenago aipatu den bezala, Durangotik datozen emakume batzuk dira dinamizatzaile lana egiten dute, guztiak boluntarioak. Ahal den bitartean mantenduko den tailerra da.





**www.izarbidean.org**

**Facebook-Izarbidean**

**Instagram-Izarbidean**

2010eko uztailean jarri genuen martxan gure webgunea. Zenbait helburu ditu webgune honek, baina denen artean garrantzitsuenak da erabiltzaile, haien familietako partaide eta, oro har, herrikoei, ingurukoei eta gutaz zerbait jakiteko gogoia duten guztiei informazioa helaraztea.

Bizi garen garaia kontutan hartuta, hausnartu eta Interneten presentzia izatea ezinbestekoa dela ohartuta, gure berri emateko ahalegina egin behar genuela erabaki genuen.

Horregatik, webguneaz gain, Facebook eta Instagram sare sozialetan ere profilak sortu ditugu; izan ere, zenbait erabiltzailek profil propioak dituzte sare horietan eta Izarbideanek ere berea izateko eskaera egin zuten.

Teknologia berrietan egin dugun murgilketaren inguruan balorazioa oso positiboa da; izan ere, erabiltzaileek bereziki estimatzen dute haien berri ematea eta gustuko dute irudi eta testu horietako protagonista izatea. Gainera, jendeari elkartearen berri emateko bide arina eta zuzena da.



www.izarbidean.org

Laguntzaileak:

Markina-Xemeingo udala

Etxebarriako udala

Ziortza-Bolibarko udala

Bizkaiko Foru Aldundia

Fundación La Caixa

La Caixa - Markina-Xemein

Cikautxo

Eika

Kide

Lagun Aro

Fagor Arrasate

Danobat

Berakruz Ikastola

